

BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,
Eusco Icasuntzaren pribilegioatequin,
Reding mercatalecheac, Artem moldizteguian.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,
por la casa de comercio de Reding, en la imprenta de Artem.

Tolosan, 1812co lorailaren 17ean. Londresco Estafeta, Donostitic irichiya.

Azquenecoz bisita eguin nizuenean contatu becela, Tolosarrac, Basatiac, Europaco Tiranoac Czarraren lurretan topatu du bere zorigaica, Londresco Estafetatic dartzoidan berriac ecin obeac baitira.

Bonaparte Basatiaren aguindupean diren gaceta gezurtiec jaquin aracico zizuen berac ta bere Equersitu Aundiac leengo agorrillean Moscuco atean aurtean, Errusia guztien iriburuan, Czarraren tropac garaicea lortu zutela, seguidan Europaco Tiranoaren eta bere uniformedun bidelapur bandaren escu gueratu cela, nai becela arpillatu zutelaric. Ala ta guztiz ere, zurrumurruen bidez bacartic encungo zenuen errusiar berec iriari su eman ziotela, dagoeneco jasaten ari garen negu crudelarencat erasocaileri babeslecu galaraziz, artara. Jada emen pairacen dugun negua eta ango lurretan oicoa baino are eta gogorra goa guertacen ari dena.

Gorabera ortec, eta Tiranoaren Equersitu Aundiac urriaren bucaeraz gueroztic eta azillaren lenengo egunetan Malo-Jaroslawez, Crasnoe becelaco lectuetan eta amai-

gabeco guduxca chiquietan Czarraren tropen erasoac sufritu izanac derrigortu dute erretiradand borrocacera. Basatiac, gainera, errusiarren escu eror zitezqueenaren beldur, bere arrano eta estandarteac sunchitu omen ditu. Icus ezazue, beraz, nola usurpacaile onencat, Ascatasunaren ilcaile onencat, idacitaco zoricharra datorren azquenean betecera, beti iragarti nicuen becela, eta luce gabe beteco da, tropa aliatuec sufritutaco zoricharrac gorabera, urrian Lord Wellington Burgosetic Hegoalderanc erretiracera beartu zuenaren ancera.

Tolosaco berriac, bertan icusiyac.

Ichuraz, naiz eta soilic ichuraz izan, gueure arteco gauzac ez dira batere aldatu, Czarraren lurretan negu onen asieran guertatu denagatic.

Onenbestez, gobernacen gaituzten chochonguilloc Buonaparte Basatiaren chaperoec alaxe aguincen dutelaco, ez gutaco inorchoc auquerratu dituelaco ixilean eta escacen dieten guztia ematen seguitzen dute.

Orain arte izan duten oituraren arabera, gau ta egun crudelqui celatacen gaituzten "chandar-meac" deicen dituzten giza ichuraco basati orien oe arropa obedienciaz garbicen jarraicen dute, zereguin oien arduradun den gueure auzo Prudencia de Larrañagac noizean bein aurquezten duen contua pagatuz, urri onen sean guertatu cen becelaxe.

Era berean, urri osoco ilabete orretan eta baita azillacoan ere quexatu ziren ez zutela cerequin elicatu bere burua mariscalcat jocen duen eta agorrillean eguin zigun bisitatic urdaila utsic atera cen Marmont becelaco guizon aundiac.

Bere quexac ain izan dira aundiac, bere burua probincia onetaco intendente-cat duenac azillaren 17an gueure erri anaiquide diren Azpeitia, Azcoitia, Deva eta Motricoren contra borroca eguiteco baimena eman baicuen jaca urdindun bidelapur oriencaco janaria lorca aldera.

Dena den, Tolosarrac, jaquin ezazue ichuraz Europaco Tiranoaren eta bere anaia- ren oso esaneco diren guizonen artean ere, badirela dagoeneco lanean ari direnac gueure Ascatasunaren alde borrocacen dutenen contraco beren burubideac gauza ez daitecen, eroi oiec laguncen dituztenac fusilaceco Basatiaren chaperoec emanda- co derrigorrezco aguinduen betecera denboran luzatuz. Leengo garagarrillaren 18az gueroztic gueure Udalbatzan bideric eman ez zaien aguinduac eta badirudi, urtea bucatuco dela aguinduoc batere contuan artu gabe.

Ar ezazue ichura bateco utseguite ori Tiranoaren menderacea luce gabe buca- ceac dagoenaren seinalecat. Gueure artean edo Europaco iparrecoc muturrean, lais- ter astinduco dela uztarri beldurgarri eta odoltsu ori.

En Tolosa a 17 de diciembre de 1812. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.

Tal y como os lo anuncié la última vez que os visité, Tolosarras, el Ogro, el Tirano de la Europa, ha encontrado su fatal destino en las tierras del Czar, pues las noticias que me llegan desde la estafeta de Londres no podrían ser mejores.

Os habrán hecho saber las mendaces gacetas que obedecen los dictados del Ogro Bonaparte que él y su llamado Gran Ejército lograron derrotar el pasado mes de septiembre a las tropas del Czar ante las puertas de Moscú, la capital de todas las Rusias, que de seguido cayó en poder del Tirano de la Europa y su turba de bandidos de uniforme, que la saquearon a placer. Sin embargo sólo habréis oído a través de rumores que los mismos rusos dieron fuego a la ciudad, privando así al invasor de refugio para el crudo invierno que ya padecemos y que en aquellas tierras está siendo aún más riguroso que de costumbre.

Esa circunstancia, y el hecho de que desde finales de octubre y los primeros dí-

as de noviembre el Gran Ejército del Tirano ha sufrido los embates de las tropas del Czar, en lugares como Malo-Jaroslawez, Crasnoe y en infinidad de pequeñas escaramuzas lo han obligado a batirse en retirada. Se dice que el Ogro incluso ha debido destruir sus águilas y estandartes por temor a que cayeran en manos rusas. Ved, pues, cómo el Destino fatal escrito para este usurpador, para este asesino de la Libertad, viene, al fin, a cumplirse, tal y como siempre os lo anuncié, y no tardará mucho en consumarse incluso pese a reveses sufridos por las tropas aliadas, como el que obligó en octubre al Lord Wellington a retirarse hacia el Sur desde Burgos.

Noticias de Tolosa. Observadas del natural.

En apariencia, aunque sólo en apariencia, nada han cambiado las cosas entre nosotros a causa de lo que ha ocurrido en el comienzo de este invierno en las tierras del Czar.

Así, los títeres que nos gobiernan porque los esbirros del Ogro Buonaparte así lo ordenan, y no porque ninguno de nosotros los haya elegido, siguen callando y otorgando a todo lo que les piden.

Como hasta ahora han tenido por costumbre, siguen lavando obedientemente la ropa de cama de esas fieras con figura de hombre que nos vigilan día y noche cruelmente, los llamados "gendarmes", pagando la cuenta

que nuestra vecina, Prudencia de Larrañaga, encargada de tales menesteres, presenta de cuando en cuando. Como así ocurrió este 5 de octubre.

Asimismo todo ese mes de octubre y también el de noviembre se quejaron de que no tenían con qué alimentar a grandes prohombres como un tal Marmont, que dice ser mariscal, y salió con el estomago disgustado de la visita que nos hizo en septiembre. Tan alto han llegado sus quejas que el 17 de noviembre el que se hace llamar intendente de esta provincia les autorizó a hacer la guerra a nuestras villas hermanas de Azpeitia, Azcoitia, Deva y Motrico para conseguir alimentos para esos bandoleros de casaca azul.

Sin embargo sabed, Tolosarras, que incluso entre hombres en apariencia tan obedientes al Tirano de la Europa y su hermano hay quienes ya trabajan para que sus designios contra los que luchan por nuestra Libertad no se lleven a cabo, dilatando el cumplimiento de las sumarias órdenes impartidas por los esbirros del Ogro para fusilar a quienes ayudan a esos héroes, a las que no se ha dado curso en nuestro Ayuntamiento desde el 18 de julio pasado y, a lo que parece, fenecerá este año sin que se hayan siquiera considerado.

Tomad esa aparente negligencia por la señal, definitiva, de que el dominio del Tirano está ya muy próximo a concluir. Entre nosotros o en el extremo Norte de la Europa, que pronto se sacudirá ese horrible y sangrante yugo.



Monstrua elicacen - Alimentando al monstruo